



Murgian, bi mila eta hamazazpiko urtarrilaren hemeretziaren, arratsaldeko zazpiak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutiérrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari-lanak egin ditu.

### ALKATEA

UNAI GUTIÉRREZ URKIZA JN. (EH Bildu)

**BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK**  
INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)

AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)

GORKA IRIONDO GANTXEGI JN. (EH Bildu)

ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (EAJ-PNV)

MARTÍN GORROTXATEGI MENIKA JN. (EAJ-PNV) (20:30ean heldu da)

CONCHI LÓPEZ LÓPEZ AND. (EAJ-PNV)

JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZBG-ZNU)

SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE AND. (ZBG-ZNU)

JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA JN. (ZBG-ZNU)

LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ JN. (PP)

Arratsaldeko zazpitan bilkura publikoa irekita, Lehendakariaren aginduz aurreikusitako gai-zerrenda landu, eta adierazten ditudan ondoko erabakiak hartu dira.

### 1.- AURREKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Aurreko Bilkuraren akta ikusirik, honako ohar hauek egin dira:

En Murgia a diecinueve de enero de dos mil diecisiete, siendo las diecinueve horas, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebró Sesión Ordinaria en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial con la asistencia de l@s Señor@s Concejales que debajo se relacionan bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando de Secretario la de la Corporación, D<sup>a</sup> Susana Zubiaur Zorrilla.

### ALCALDE

DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)

### CONCEJALES ASISTENTES

DOÑA INMA ELORZA BERGARA (EH Bildu)

DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)

DON GORKA IRIONDO GANTXEGI (EH Bildu)

DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA (EAJ-PNV)

DON MARTÍN GORROTXATEGI MENIKA (EAJ-PNV) (se incorpora a las 20:30 h.)

DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (EAJ-PNV)

DON JUAN CARLOS ALONSO MORAZA (ZBG-ZNU)

DOÑA SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE (ZBG-ZNU)

DON JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA (ZBG-ZNU)

DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ (PP)

Abierto el acto público a las diecinueve horas, por orden de la Presidencia se trató el Orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

### 1.- LECTURA Y APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA ANTERIOR.

Vista el acta de la Sesión anterior se realizan las siguientes observaciones:



Eguiluz zinegotzi jaunak esan du 4.- Lanpostuak onartzea aztergai, esan zuenaren zati bat ez dela jaso, ondoren transkribatzen denaren arabera: *“Hasteko, oraindik ez dute argi musikako langileak sartzen diren ala ez, alde batetik ezetz esaten delako, baina beste aldetik aurkeztutako LPZn datozelako; batzorderen batean ere esan dugu, eta esaten jarraitzen dugu, ez dela ulertzen duela urte asko eratutako lanpostuak eta balorazioaren arabera goi-mailako taldearenak direnak (izan ere, C-1 taldeko plaza irekitzean horixe proposatzen da) gain hartzen joan diren lanpostu horiek, beren soldatetan galera handia eduki ahal izatea, baina duela hamar urte baino gutxiago sortu eta oso ataza zehatzak dituzten lanpostuek, ordea, soldata-igoera handia izatea, horietan ia aldaketarik egon gabe eta horietako batzuk, gaur egun, kanporatu direlarik. Gure iritziz, azken lanpostu horietan hainbat irizpideren gehiegizko balorazioaren ondorioz gertatu da. Irizpide horien artean titulazioarena dago, baloratzeko irizpiderik argiena eta subjektibotasun txikiak izanik, lanpostuari dagokion taldeak ezartzen duelako. Hemen, ordea, eta enpresaren txostenari jarraiki, haztapena egokitzapen berezi gisa aldatzen da, udalaren soldata-egituraren ez dakit zein ezaugarriaren arabera, eta lanpostu guztiak berdintzen ditu 300 punturekin, lizentziadunak nahiz eskola-gradudunak izanda. Gai hau sektoreko enpresaren batekin kontsultatu eta erantzun digute beraiek ez dutela inoiz irizpide hori erabili, emandako balorazioa ez den beste irizpideren bat dago balorazioaren arabera lanpostuari dagokionaren gainetik, eskuliburuak berak adibideen bitartez adierazten duen bezala, eta arduradun edo taldeburuen mailekin parekatzen ditu. Horrek guztiak pentsarazten digu, halaber, egindako beherakaden helburua igoerak zati batez orekatzea dela, Estatuko aurrekontu*

El Concejal Sr. Eguiluz dice que en el punto 4.- Aprobación de los puestos de trabajo, se ha omitido parte de lo que dijo conforme a continuación se transcribe: *“Para empezar no tienen claro todavía si el personal de música entra o no, pues por una parte se dice que no, pero por otra vienen en la R.P.T. presentada; también hemos venido diciendo en alguna comisión y seguimos diciendo, que no se entiende que plazas constituidas hace muchos años y que han ido asumiendo tareas de las cuales algunas según la valoración son propias de un grupo superior, y así se propone al abrir las plazas al grupo C-1, puedan sufrir un detrimento importante de sus retribuciones, por el contrario plazas creadas hace menos de diez años y con tareas muy determinadas que apenas han sufrido variaciones y que algunas de ellas actualmente se externalizan, tengan un incremento retributivo considerable; esto es a nuestro entender debido a la sobrevaloración de algunos criterios en estas últimas plazas, como el criterio de titulación que siendo el criterio más claro y menos subjetivo para su valoración, ya que viene marcado por el grupo en el que se encuentre la plaza, sin embargo aquí según el informe de la empresa se modifica la ponderación como adaptación especial en base a no se sabe que peculiaridades de la estructura retributiva del ayuntamiento e iguala con 300 puntos a todas las plazas sean licenciados o graduado escolar; Consultado este aspecto con alguna empresa del sector la respuesta es que ellos nunca han utilizado ese criterio, existe algún otro criterio que la valoración dada está por encima de la que corresponde a la plaza en valoración según señala el mismo manual con sus ejemplos y los equipara a niveles de encargados o jefes de grupo. Todo esto también nos hace pensar que las bajadas efectuadas tienen como finalidad compensar en parte las subidas, para intentar cumplir la ley de presupuestos generales del estado y*



orokorren legea betetzen saiatzeko, eta oraindik ere ordezkariari eskatutako erantzuna falta zaigu.

Alkateak esandakoari dagokionez, hau da, aipatu dituen beste udalerrri batzuk baino langile gutxiago ditugula, ezer gutxi esaten dit horrek, esan bezala, beste batzuetan kanporatu ez diren zerbitzuak kanporatzen direlako, edo ez delako batzuetan lanpostu huts asko dagoela erreparatzen, baina horretaz gain, lanposturen bat sortzeko komenigarritasuna proposatu dugu eta, egiteko dauden murrizketak direla-eta, udalen batek erabiltzen duen formula eman dugu, baina orain egiten dena da lanpostu zehatzak baloratu eta datu batzuk eman nahi ditut: Udalek izen berarekin ateratzen dituzten lanpostuak oso antzekoak izaten dira eta soldata aldetik ez da alde handirik egoten; horren adibide askotariko eginkizunetarako langileena dugu, izan ere, zereginak antzekoak dira probintziako udaletan. Baina gurearen antzeko biztanle-kopurua duten inguruko herri batzuen adibidea jarriko dut, eta tartean, Zigoitia-Legutio-Iruña Oka eta Dulantzi: horietan antzekoak dira zereginak, soldata-mailen artean ez dago alde nabarmenik eta lauretan batez besteko soldata 23.300 eurokoa da, hau da, egungo gurearen antzekoa. Lanpostu hauetarako proposatutako 27.267,40 euroko aldaketarekin, aipatu batez bestekoarekiko igoera ehuneko hamazazpikoa da, hori da dagoena. Datu hauek bateratzeko eskatu da ebazpena berandutzea”

5.- Blas López López jaunarekin trukatzeko espedienteaz aztergaiko bozketan dagoen akatsaren berri eman du idazkariak: erabakia ez zelako aho batez hartu, gehiengo osoz baizik, hau da, EH-Bilduko (4) zinegotzien, EAJ-PNVko biren (Ircio eta López andreak) eta PPkoaren aldeko botoarekin, eta gainerako abstentzioarekin: ZBG/ZNUkoena (3) eta EAJ-PNVko batena (Gorrotxategi jn.).

que aún estamos a falta de la respuesta del delegado a la aclaración solicitada.

Respecto a lo mencionado por el Sr. Alcalde de que somos un municipio con menos personal que otros que ha nombrado, poco me dice, como se ha dicho se externalizan servicios que en otros no, si se mira en algunos hay muchas vacantes, pero aparte de eso nosotros hemos propuesto la conveniencia de crear alguna plaza y hemos dado la fórmula que utiliza algún ayuntamiento para hacerlo por las restricciones existentes, pero ahora lo que se hace es valorar plazas concretas y quiero dar unos datos: las plazas que sacan los ayuntamientos con la misma denominación suelen ser muy semejantes y retributivamente no suele haber grandes diferencias, las de operarios de servicios múltiples es un ejemplo, las tareas vienen a ser similares en los ayuntamientos de la provincia, pero pondré el ejemplo de algunos que son del entorno y similares en población al nuestro como es Zigoitia-Legutio-Iruña de Oca y Alegria-Dulantzi, en estos las tareas son similares y el nivel retributivo sin diferencias significantes, la media retributiva de los cuatro es de más menos 23.300 euros, también similar al actual nuestro. Con la modificación propuesta de 27.267,40 euros para estas plazas, la subida con la media mencionada supone un diecisiete por ciento, es lo que hay. Con la finalidad de consensuar estos datos es por lo que se solicita posponer la resolución”

La Secretaria da cuenta del error existente en la votación del punto 5.- Expediente de permuta con D. Blas López López: porque el acuerdo no se adoptó por unanimidad sino por mayoría absoluta, con el voto favorable de los Concejales de EH-Bildu (4), dos de EAJ/PNV (Sras. Ircio y López) y el del PP y la abstención del resto: ZBG/ZNU (3) y 1 EAJ/PNV (Sr. Gorrotxategi).



Udalbatzak akta azalduko zuzenketekin onartu du.

## 2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.

Alkatetzak 2016.12.15eko 425. zk.ko dekretutik 2017.01.12ko 8.era arte eman dituen xedapenen berri eman eta ondoko gai hauei buruzkoak dira: Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegira egindako jakinarazpena Markinako Batzarraren ez ordaintzeen aurreko 52/2016 zk.ko errekursoan eskatutako espedientearen bidaltzeko ezintasuna adierazteko, eskura ez edukitzeagatik. SARE Elkarteari gehenez ere 2.000 euroko diru-laguntza ematea, udalerrian hainbat jardura egiteko. Udaleko langileen aparteko ordainsariari eta 2016. urteko soldaten eguneratzeari, zerbitzuei, zuzkidurei, obrak egiteari eta hobariak eta diru-laguntzak emateari dagozkien 22, 23/2016 eta 1/2017 zk.ko ordainketa-aginduak (136.041,40 €, 233.032,17 € eta 149.358,97 €, *hurrenez hurren*) onartzea. Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren azken hiru urteko likidazioak (70.521,75 €) onartzea. Udalerrian erroldatutako pertsona bati euskara ikasteko diru-laguntza ematea. Goba Kultur Elkarteari baimena ematea, abenduaren 30ean ekitaldi publiko bat egitearren, Udaletxe plaza karpa batekin okupatzeko. Aldundiari, 2017ko lan txikien programaren barruan, Udaletxeko 1. solairuko bulegoak egokitu eta erabilera anitzeko areto bat bideratzeko diru-laguntza eskatzea. Diru-laguntzak ematea: Oroko Santutegiko Zuzendaritza Batzordeari 1.484,37 €, eraikinean hainbat jarduketa egiteko; Ametzaga Zuiako Administrazio Batzarrari 15.171,77 €, saneamendu-sarea zati batez berritzeko lanetarako, eta 4.895,76 € proiektua idazteko eta lanen zuzendaritzarako, 9.314,04 € energia-eraginkortasuna hobetzeko lanetarako,

La Corporación aprueba el acta con las correcciones expuestas.

## 2.- DECRETOS DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones dictadas por la Alcaldía desde el Decreto Nº 425 de fecha 15.12.16 al Nº 8 de 12.01.17 referentes a la comunicación realizada al Juzgado de lo Contencioso-Administrativo Nº 1 de Vitoria-Gasteiz de la imposibilidad de remitir el expediente solicitado en el recurso Nº 52/2016 frente a impagos de la Junta de Markina porque no se dispone del mismo, concesión a la Asociación SARE de una subvención máxima de 2.000 euros para realizar diversas actividades en el municipio, aprobación de relaciones de mandamientos de pagos Nº 22, 23/2016 y 1/2017 referentes a retribuciones del personal del Ayuntamiento por paga extraordinaria y actualización de retribuciones año 2016, servicios, suministros, ejecución de obras y concesión de bonificaciones y subvenciones, cuyos importes ascienden a 136.041,40€, 233.032,17€ y 149.358,97€ respectivamente, aprobación de liquidaciones del Impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana de los últimos 3 años por importe de 70.521,75€, concesión de subvención a persona empadronada en el municipio para el aprendizaje de euskera, autorización a Goba Kultur Elkartea para la ocupación de Plaza del Ayuntamiento con una carpa para realizar un acto público el día 30 de diciembre, solicitud a Diputación dentro del programa de obras menores/2017 de subvención destinada a la adecuación de despachos y habilitación de sala polivalente en la planta 1ª de la Casa Consistorial, concesión de subvenciones a la Junta Rectora del Santuario de Oro: 1.484,37€ para actuaciones en el edificio, Juntas Administrativas Ametzaga Zuiak: 15.171,77€ para las obras renovación parcial de la red de saneamiento y 4.895,76€ para redacción del proyecto y dirección de las obras, 9.314,04€



5.894,60 € arkitektura-oztopoak - espaloietako pasabideak- kentzeko eta 1.463 € S. Andres jaietarako, eta ikuztegiko estalkia konpontzeko lanetarako eta toki-artxiboa digitalizatzeko diru-laguntzak ukatzea, lehenengo AFaren %100eko diru-laguntza duelako eta bigarrena ez dagoelako deialdiaren Oinarrietan aurreikusita; Domaikia Batzarrari 1.338,15 € hilerria txukuntzeko; Bitorianoko Batzarrari 4.890 € energia-eraginkortasuneko lanetarako eta 54 € herrian elurra kentzeko; Murgiako Batzarrari 152 € herrian elurra kentzeko eta 6.345 € herriko inbentarioa eguneratzeko; Giliernako Batzarrari 2.222 € herriko ondasun eta eskubideen inbentarioa eguneratzeko; Sarriakoari 18.207,07 € energia-eraginkortasuneko lanetarako eta 1.025 € Gabonetako Jaiotzarako; Aperregiko Batzarrari 229 € Eliz parroikiko lanetarako eta horniduran mantentze-lanak egiteko eta artxiboa digitalizatzeko eskatutako diru-laguntzak ukatu zaizkio, ez delako deialdian aurreikusten; Jugoko Batzarrari 491,38 € para Jugatxiko Ermitako aretoaren zorurako eta 3.674,08 € bi bide konpontzeko; Lukianoko Batzarrari 5.820,10 € argiteria publikoko argiztapen-sistema led lanperez ordezkatzeko; Zarateko Batzarrari 1.813,18 € txokoko estalkia konpontzeko. Lan-baimenak ematea: Zarateko 733/4 lursailean biltegitartzeko estalpea eraikitzeke; Iberdrola Distribución Eléctrica S.A. enpresari, Murgiako 3/1 lursailean dagoen komentuko iparraldeko fatxadatik pasatzen diren linea elektrikoak lurperatzeko; Murgiako 23/2 lursaileko eraikinaren estalkia zaharberitzeko; Murgiako 7/6 lursaileko etxebizitzaren fatxada margotu eta terrazako lauzak ordezkatu izana legezatzeko. Errekerimendua Islarra poligonoko enpresa bati, baimenik gabe egiten ari den lanak gelditu eta horietarako baimena eska dezan. Ametzaga Zuiako 125/1 lursailean eraikitako etxebizitza okupatzea ukatzea, urbanizazioan hainbat

para trabajos de mejora de eficiencia energética, 5.894,60€ para obras de supresión de barreras arquitectónicas -vados en aceras- y 1.463€ para las fiestas de S. Andrés, denegación de subvención para las obras de reparación de la cubierta del lavadero porque está subvencionada por DFA al 100% y para digitalizar el archivo local porque no está previsto en las Bases de la convocatoria, Junta de Domaikia 1.338,15€ para mejora del cementerio, Junta de Bitoriano 4.890€ para trabajos de eficiencia energética y 54€ para retirada de nieve de la localidad, Junta de Murgia 152€ para retirada de nieve de la localidad y 6.345€ para la actualización del inventario de la localidad, Junta de Guillerna/Gilierna, 2.222€ para actualizar el inventario de bienes y derechos de la localidad, Junta de Sarriá 18.207,07 para trabajos de eficiencia energética y 1.025€ para el Cortejo navideño, Junta de Aperregi 229€ para las obras de la Iglesia parroquial y se le deniega la subvención solicitada para trabajos de mantenimiento en el abastecimiento y para digitalizar el archivo porque no se prevé en la convocatoria, Junta de Jugo 491,38€ para el suelo de la sala de la Ermita de Jugatxi, 3.674,08€ para arreglo de dos caminos, Junta de Lukiano 5.820,10€ para sustituir el sistema de iluminación del alumbrado público por lámparas led, Junta de Zárate 1.813,18€ para el arreglo de la cubierta del txoko, concesión de licencias de obras para construcción de un cobertizo para almacenamiento en la parcela 733/4 de Zárate, a Iberdrola Distribución Eléctrica S.A. para soterrar los tendidos eléctricos que discurren por la fachada norte del convento de la parcela 3/1 de Murgia, para rehabilitar la cubierta del edificio de la parcela 23/2 de Murgia, para legalizar sustitución de losas en terraza y pintado de fachada de vivienda de parcela 7/6 de Murgia, requerimiento a empresa del polígono de Islarra para que paralice las obras que está ejecutando sin licencia y solicite la misma, denegación de la ocupación de vivienda construida en la



hutsune daudelako. Bitorianoko 1.203/2 lursaileko etxebizitza zati batez berritzeko lanen amaierako ziurtapena onartzea. Giliernako 150/1 lursailean dagoen eraikineko forjatuaren zati bat ordezkatzeko lanen amaierako ziurtapena onartzea. Javier Ruiz de Larrinaga jaunari 2016/17ko ziklokros denboraldirako 1.800 €ko laguntza-kontratua esleitzea. Murgiako 40/6 lursailean dagoen etxebizitza berritu eta handitzeko baimena ematen duen eta hirigintza-aprobetxamenduaren %15aren balioespena zuzentzen duen dekretuaren aurrean aurkeztutako errekurtoa onartzea. Zaratekoa ez den Kontzeju guztiei 2015eko abendutik 2016ko azarora arteko argiteria publikoaren gasturako 58.104,81 €ko dirulaguntza ematea eta Zarateko Batzarrari 2015eko azarotik 2016ko abendura arteko argiteria publikoaren gasturako 1.245,75 €ko aparteko dirulaguntza izenduna ematea. Herritar bati OHZn 252,29 €ko hobaria ematea. Hainbat herritarri 2017ko ekitaldiko TMIZn hobariak ematea 25 urtetik gorako ibilgailuetarako eta minusbaliotasunagatik hobaria ematea. Harri Iparra S.A. enpresak 2016ko EJZren likidazioaren aurrean aurkeztutako errekurtoa onartza, 2015eko ekitaldian zehar udalerrian higiezinik ez saltzeagatik. Gorrostianoko txabolaren esleipenaren aurkako errekurtoaren uestzko gaitzespenagatik Berretin Berdea Zuiako Abeltzainen Elkarteak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtoari buruzko espedientea bidaltzea. Funtzionario ohi batek hirurtekoen kalkuluan izandako aldeagatik aurkeztutako zenbateko-erreklamazioa zati batez onartzea eta 182,61 € (interesak barne) ordaintzea onartzen zaio. Bi funtzionariori 2016ko atzerapenengatik 1.328,85 € ordaintzea. Aurrekontu-aldaketak onartzea: 3.729,82 €ko 5. zk.ko Transferentzia eta 1.245,75 €ko 6. zk.koa eta 11.783,48 €ko 2. zk.ko kreditu-gaikuntza tokiko lan-enplegurako. Musika Eskolaren eta OAMIPeko Ordutegi Luzatuaren zerbitzuei

parcela 125/1 de Ametzaga Zuia por existencia de deficiencias en la urbanización, aprobación de certificación final de obras de reforma parcial en la vivienda de la parcela 1.203/2 de Bitoriano, aprobación de la certificación final de obras de sustitución de una parte del forjado del edificio situado en la parcela 150/1 de Guillerna/Gilierna, adjudicación de contrato de patrocinio a D. Javier Ruiz de Larrinaga en el precio de 1.800€ para la temporada de ciclocross 2016/17, estimación de recurso interpuesto frente a decreto por el que se concede licencia para reforma y ampliación de vivienda en la parcela 40/6 de Murgia y se rectifica la valoración del 15% del aprovechamiento urbanístico, concesión de subvención a los Concejos excepto Zárate para el gasto de alumbrado público diciembre 2015/noviembre 2016 por importe total de 58.104,81€, subvención extraordinaria nominativa a la Junta de Zárate para el alumbrado público noviembre 2015/diciembre 2016: 1.245,75€, concesión de bonificación en el IBI a un vecino por importe de 252,29€, concesión de bonificaciones en el IVTM a vecinos del municipio para el ejercicio 2017 para vehículos de más de 25 años y bonificación por minusvalía, estimación del recurso interpuesto por Harri Iparra S.A. frente a la liquidación del IAE/2016 al no haberse producido ventas de inmuebles en el municipio durante el ejercicio 2015, remisión del expediente relacionado con el recurso contencioso-administrativo interpuesto por Berretín Berdea-Asociación de Ganaderos de Zuia por desestimación presunta del recurso contra adjudicación de la chabola de Gorrostiano, estimación parcial de la reclamación de cantidad por diferencia en el cálculo de trienios presentada por una ex funcionaria y se le reconoce el abono de 182,61€ intereses incluidos, abono de 1.328,85€ a dos funcionarios correspondiente a atrasos 2016, aprobación de modificaciones presupuestarias Transferencias N° 5 por importe de 3.729,82€



dagozkien urriko (matrikulak barne), abenduko tasen erroldak onartzea (1.904,08 € eta 774 €, hurrenez hurren). Murgiako eraikineko estalkiaren lanak egiteagatik Karmeldar Oinutsen Komunitateak EIOZren likidazioaren aurka jarritako errekurtoa onartzea, hori ordaintzeaz salbuetsita daudelako eta 197,57 €ko likidazio hori baliogabetzea. Kultura-elkarteen, euskara sustatzeko eta gizarte-eta kirol-arloko elkarten diru-laguntzen (2016 edo 2015/16 denboraldiak) behin betiko zenbatekoa onartzea, egindako jardueren egiaztapena aurkeztu ondoren. Bea-Murgia eta Oregi eraikinetan erregaia eta sorgailu termikoa ordezkatu izanaren ziurtapenak onartzea, lan horiek Instalaciones Generales Boro S.L. enpresak 36.849,19 € eta 34.210,20 €tan egin dituztelarik.

Ordainketak direla-eta, San Andres ziklokros lasterketan Udalak izandako gastuen berri galdetu dio Eguiluz zinegotzi jaunak alkateari, eta azken honek jakinarazi dio lasterketa nazioarte-mailakoa denez eta EJK eta Igorre eta Asteasuko Udalek esku hartzen dutenez, Zuiako Udalak ere gastuetan 4.500 euroekin esku hartzea erabaki zela eta gastu hori kirol-ekintzen partidaren kargura ordaindu dela: ez da urtero egin beharrekoa, aurtan bereziki antolatutako zerbait baita.

Udalbatza jakinaren gainean geratu eta 465 zk.ko Dekretua berretsi du, hau da, Berretin Berdea Zuiako Abeltzainen Elkartek jarritako 357/2016 zk.ko administrazioarekiko auzi-errekurtoaren inguruan Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak eskatutako espedientea bidaltzea onartzen duena.

y 6 por importe de 1.245,75€ y de Habilitación de crédito N° 2 por importe de 11.783,48€ para el plan de empleo local, aprobación de los padrones de tasas del Servicio de horario ampliado del CPVO y escuela de música del mes de diciembre por importes de 774€ y 1.904,08€ respectivamente, estimación del recurso interpuesto por la Comunidad Carmelitas Descalzas frente a liquidación del ICIO por la ejecución de obras en la cubierta del edificio de Murgia por estar exentas del misma y anulación de la citada liquidación que asciende a 197,57€, aprobación del importe definitivo de las subvenciones de las Asociaciones culturales, promoción de euskera y sociales y deportivas (2016 o temporadas 2015/16) una vez presentada la justificación de las actividades realizadas, aprobación de las certificaciones de sustitución de combustible y generador térmico de los edificios Casa Bea-Murgia y Oregi ejecutadas por Instalaciones generales Boro S.L por importes de 36.849,19€ y 34.210,20€ respectivamente,

Respecto a los pagos el Concejal Sr. Eguiluz le pregunta al Alcalde sobre los gastos realizados por el Ayuntamiento en la carrera de ciclocross de S. Andrés, informándole este último que dado el carácter internacional y que en la misma participaban G.V. y los Ayuntamiento de Igorre y Asteasu, se decidió que también participara el Ayuntamiento Zuia en los gastos con 4.500€ y se ha realizado con cargo a la partida de actividades deportivas; no es algo para hacer anualmente sino que se ha organizado este año.

La Corporación se da por enterada y ratifica el Decreto N° 465 por el que se acuerda remitir el expediente relacionado con el recurso contencioso-administrativo N° 357/2016 interpuesto por Berretin Berdea-Asociación de Ganaderos de Zuia requerido por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo N° 2 de Vitoria-Gasteiz.



### 3.- POSTA OFIZIALA.

#### 3.1.- Arabako Foru Aldundia:

- Nekazaritza Sailak: Udalaren titulartasuneko 3. poligonoko 615. lursaila banantzearen aldeko txostena egin du, Blas Lopezekin trukatzeko; Gorrostiano garaiko txabola erabiltzeko esleipenaren berri eman du; Kulukupadro inguruko finken balioespenari buruzko txostena egin du, trukatzeko helburuarekin; bilera deitu du datorren 17.01.20rako; Bitoriano eremurako eskatutako 10 landare eman direla jakinarazi du; eta 734. mendiko 5. Mugarria eta Los Cruceros inguruetako motzondo-kontaktetaren (Gestión Forestal Frías enpresari esleitua) akta bidali du.

- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak: Harri Iparra S.A. enpresak 2016ko EJZren likidazioaren aurrean aurkeztutako errekurtoaren aurreko ebazpenari buruzko aurretiazko txostena egin du; 2016ko azaroan derrigorrezko diru-bilketan jasotako zenbatekoa jakinarazi du: 1.650,23 €; eta 2017ko hiri, landa eta ezaugarri berezitako OHZren zerga-tasei buruzko informazioa eskatu du.

#### 3.2.- Eusko Jaurlaritza:

- Nekazaritza Sailak 2017ko Euskadiko nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza azoken gidaliburua bidali du.

- Ekonomia Garapen eta Azpiegitura Sailak Zuia 2015/16 energia-proiektua gauzatzeko luzapenaren eskaera onartzen duen ebazpena bidali du.

- IHOBEk udal plangintzako Arau Subsidiarioen 3. aldatetari buruz egindako kontsultari erantzun dio.

- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak: Udalaguntzaren hurrengo deialdiaren berri eman du; 2013/2017ko administrazioko euskararen normalkuntza-plana bidali du; eta Kultura Ondareak udal plangintzako Arau Subsidiarioen 3. aldatetaren inguruko txostena bidali du.

### 3.- CORRESPONDENCIA OFICIAL.

#### 3.1.- Diputación Foral de Álava:

- Agricultura informa favorablemente la segregación de la parcela de titularidad municipal 615 polígono 3 para permutar con Blas López, informa sobre la adjudicación del uso de la chabola de Gorrostiano alto, emite informe de valoración de fincas del término Kulukupadro a efectos de permuta, convoca reunión para el próximo 20.01.17, comunica la concesión de 10 plantas solicitadas para espacio de Bitoriano y remite acta de contada en blanco del monte 734 término 5º Mojón y los Cruceros adjudicado a Gestión Forestal Frías.

- Hacienda, Finanzas y Presupuestos emite informe previo a la resolución del recurso interpuesto por Harri Iparra S.A. frente a la liquidación del IAE/2016 informa del importe de recaudación en ejecutiva de noviembre 2016: 1.650,23€ y solicita información de los tipos impositivos del IBI urbanos, rústicos y de características especiales 2017.

#### 3.2.- Gobierno Vasco:

- Agricultura remite guía de ferias agrícolas, ganaderas y pesqueras del País Vasco 2017.

- Desarrollo Económico e infraestructura remite resolución que acepta la solicitud de prórroga para la ejecución del proyecto energético Zuia 2015/16.

- IHOBE contesta la consulta realizada con motivo de la 3ª Modificación de las NNSS de planeamiento municipal.

- Educación, Política Lingüística y Cultura informan de la próxima convocatoria de Udalaguntza, remite plan normalización euskera en la administración 2013/2017, Patrimonio cultural remite informe relacionado con la 3ª modificación puntual de las NNSS de planeamiento





- Ingurumen eta Plangintza Sailak Udalplanari buruzko datuak bidali ditu.

### 3.3.- EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak:

- Udal gizarte-zerbitzuak emateari eusteko erabakiaren eredia bidali du.

### 3.4.- Epaitegiak:

- Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiak, Biurrarena S. Coop. enpresak aurkeztutako errekurtsori buruzko 227/2016 prozedura laburtuko antolaketa-eginbidea bidali du, eta peritu berriaren izendapena onartu dela jakinarazi du.

- Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak, Berretin Berdea Zuiako Abeltzainen Elkarteak aurkeztutako errekurtsori buruzko espedientea eskatu du berriz ere.

## 4.- 2017KO AURREKONTUAREN PROPOSAMENA (UDAL LPZ-REKIN BATERA)

Alkate-udalburuak 2016ko ekitaldirako aurrekontua, aurrekontu-plantillarekin batera onartzea proposatu du, bigarren hori Lanpostu-zerrendaren eta aurreko osoko bilkuran onartutako balorazioaren arabera izanda. Azaldu du aurrekontuak Kontzejuekin, gizarte-taldeekin eta udal-taldeekin izandako bileretan egindako alegazio eta eskaerak jasotzen dituela, eta azken egunetan hainbat doikuntza txiki egin direla kontratatutako zerbitzuei buruzko zenbait partidetan eta diru-sarreraren partidetan, gauzatutakoa ikusi ondoren. Bestalde, idazkariak azaldu du entregatutako agirian diru-sarreraren egoeran -zabor-bilketa zerbitzuaren tasak- zein gastuenean -Gorbeialdeko Partzuergo-aurreikusitako zenbatekoa zuzendu behar dela, hain zuzen ere 104.441,22 eurokoa baita.

- Medio Ambiente y Planificación remite datos sobre Udalplan.

### 3.3.- Asociación de Municipios Vascos-EUDEL:

- Remite modelo de acuerdo sobre el mantenimiento de la prestación de servicios sociales municipales.

### 3.4.- Juzgados:

- Contencioso-Administrativo Nº 3 de Vitoria-Gasteiz remite diligencia de ordenación en Proced. Abrev. 227/2016 referente al recurso interpuesto por Biurrarena S. Coop. y comunica la aceptación del nuevo nombramiento de perito.

- Contencioso-Administrativo Nº 2 de Vitoria-Gasteiz reclama nuevamente expediente relacionado con el recurso interpuesto por Berretín-Berdea-Asociación de Ganaderos de Zuiako.

## 4.- PROPUESTA DE PRESUPUESTO 2017 (JUNTO CON LA RPT MUNICIPAL).

El Alcalde-Presidente propone la aprobación del presupuesto para el ejercicio 2016, junto con la plantilla presupuestaria conforme a la Relación de puestos de trabajo y la su valoración aprobada en el pleno anterior; expone que el presupuesto recoge diversas alegaciones y solicitudes planteadas en las reuniones mantenidas con los Concejales, grupos sociales y grupos municipales, habiéndose realizado en los últimos días pequeños ajustes en determinadas partidas referentes a servicios contratados y a partidas de ingresos a la vista de lo ejecutado; en este sentido la Secretaria pone de manifiesto la necesidad de corregir en el documento entregado tanto en el estado de ingresos -tasas por servicio de basuras- como en el de gastos -Consortio Etribaciones Gorbea- la cuantía prevista, porque asciende exactamente a 104.441,22 euros.



Aurrekontu kontinuista eta aurreko ekitaldiko en antzekoa dela azaldu du, berrikuntza handirik gabekoa, aurreikusitako bi inbertsioetan izan ezik: Aita Pauldarren ikastetxeko lursaila erosteko 2. ordainketa eta Murgiako Domingo de Sautu kaleko hornidura-hodiaren aldaketa. Bi horiek deskontatuz gero, 3.300.861,48 eurokoa izango litzateke aurrekontua (iazkoaren antzekoa).

Taldeek esku hartu dute:

EAJ/PNV: López zinegotzi andreak ezer baino lehen bere haserrea azaldu du dokumentazioa oso berandu banatu delako: atzo aurrekontua, idazkariak esan duenaren arabera ongi ez legokeena, Zabor-bilketaren Partzuergoari dagokion zenbatekoa zuzendu beharko baitzen, hala gastuen nola sarreren egoeran, eta gaur, Idazkaritza-kontuhartzaitzaren txostena. Ondoren aurrekontuan egin beharreko hainbat zuzenketa proposatu dituzte:

- Udalbiltzarako aurreikusitako partida kentzea, aurrena, bere beharraz hausnartu beharko delako, eta gero, egin.
- Ikastetxeetarako Inbertsioen partidari 1.500 € gehitu (Udalbiltzarako partidatik kenduko dena), eta hau 9.500 €tan geratuko litzateke.
- Javier Ruiz de Larrinagari laguntzeko aurreikusitako zenbatekotik 400 € gutxitu, azkenean horretara 1.400 € zuzenduz.
- Elena Loyoren laguntzan 400 € gehitu, honi 1.400 € bideratuz, hau da, kasu bietara zenbateko berbera zuzenduz.

ZBG/ZNU: Alonso zinegotzi jaunak esan du aurrekontuan jasotako hainbat partidarekin ez daudela ados, batzuk ez direlako beharrezkoak eta beste batzuk oso gutxi garatu direlako, ondoren zehazten den bezala, eta aurtengo ekitaldirako aurrekontuaren tamaina ikusirik,

Expone que es un presupuesto continuista y similar al de ejercicios anteriores, sin grandes innovaciones, salvo por las dos inversiones previstas: 2º pago de la compra de la parcela del colegio de los P. Paúles y sustitución de la tubería de abastecimiento en la C/Domingo de Sautu de Murgia, que si las descontamos resultaría un presupuesto de 3.300.861,48 euros (similar al del año anterior).

Intervienen los distintos grupos:

EAJ/PNV: la Concejala Sra. López expresa en primer lugar su malestar por la demora en la entrega de la documentación: ayer el presupuesto, que según ha comentado la Secretaria tampoco estaría bien porque hay que rectificar la cuantía correspondiente al Consorcio de Basuras tanto en el estado de gastos como en el de ingresos y hoy el informe de Secretaría-Intervención, y a continuación proponen una serie de enmiendas al mismo:

- Eliminar la partida prevista para Udalbiltza, porque primero habrá que pensar su necesidad y luego ya se hará.
- Incrementar en 1.500€ (importe que se elimina de la partida de Udalbiltza) la partida correspondiente a Inversiones en centros escolares que quedaría en 9.500€.
- Reducir la cuantía prevista para el patrocinio de Javier Ruiz de Larrinaga en 400€, destinando a tal fin 1.400€.
- Incrementar el patrocinio de Elena Loyo en 400€, con una consignación de 1.400€, resultando la misma cuantía en ambos casos.

ZBG/ZNU: el Concejala Sr. Alonso dice que hay una serie de partidas que se recogen en el presupuesto con las que no están de acuerdo por no ser necesarias unas y otras por estar poco desarrolladas, tal y como a continuación se detallan, y dado el volumen de presupuesto del presente ejercicio podrían



hurrengorako utz litezkeela. Bestalde, aurrekontuak erakundearen plantilla osatzen duten lanpostuen zerrenda eta dagozkien soldatak egin berri den balorazioaren arabera jasotzen ditu, eta horrek aldaketa dakar iazkoarekin alderatuz eta oraindik onartzeaz dago, baztertu gabe talde hau aurreko osoko bilkuran horrekin ados ez dagoela adierazi zuela:

- Udalbiltza: aurrena zer egingo den ikusi beharko litzatekeela uste dute.

- Kultur Etxearen beharrei buruzko azterlana, lehen-hezkuntzako ikastetxea Aita Pauldarrenekora lekualdatu eta Ikastetxe Publikoaren egungo eraikina hutsik gelditzen denean Zuiako egoera nabarmen aldatuko dela uste baitute.

- Ikastetxeetako altzarien zuzkidura, ez delako Udalaren eskumenekoa, Hezkuntzarena baizik.

- Alokairurako laguntzak, momentua ez dela uste delako, izan ere, aurrena emateko araudia onartu beharko litzateke.

Azaldutakoagatik, eta kontuan hartuta aurrekontu-proposamenaren aurkako boto bat aurreikusitako lanak aurten egiteko oztopo izango ez dela (soberakinarekin partidak bidera litzatekelako), ZBG/ZNU talde honek horren aurka bozkatuko du.

PP: Sautu zinegotzi jaunak hainbat partidaren inguruan galdetu du:

- Urtume aldizkaria: alkateak jakinarazi du udalerriko pertsona-talde batek egin eta Udalak ordaintzen dituela maketazioa eta inprimaketa, baina ondoren aldizkariaren salmentaren diru-sarrerak jasotzen dituela.

- Azterlanen argitalpena: zeri dagokio partida horri? Alkateak esan du Eugenio Murgia bekaren ondoriozko lana argitaratzeari interesgarri iritziz gero, argitaratu egiten dela, eta horixe egin dela

dejarse para el próximo; Por otro lado el presupuesto contiene la relación de puestos que integra la plantilla de la entidad con sus retribuciones correspondientes conforme a la valoración efectuada recientemente, que supone una modificación respecto al año anterior y está en fase de aprobación, sobre la que este grupo manifestó no estar de acuerdo en el pleno anterior:

- Udalbiltza: piensan que primero sería necesario ver lo que se va a hacer.

- Estudio de necesidades de la Kultur Etxea porque piensan que la situación en Zuia va a cambiar bastante cuando se traslade el centro escolar de primaria a los P. Paúles, y quede vacante el actual edificio del Colegio Público.

- Suministro mobiliario centros escolares porque no es competencia del Ayuntamiento sino de Educación.

- Ayudas al alquiler porque piensan que no es el momento, primero habría que aprobar la normativa para su concesión.

Por lo expuesto, y considerando que un voto negativo a la propuesta de presupuestos no va a suponer un obstáculo para el desarrollo este año de las obras previstas realizar (porque se podrían habilitar las partidas con el remanente), este grupo ZBG/ZNU votará en contra del mismo.

PP: el Concejal Sr. Sautu pregunta sobre determinadas partidas:

- Revista Urtume: el Alcalde informa que la elabora un grupo de personas del municipio y la maquetación e impresión la paga el Ayuntamiento, que posteriormente recibe los ingresos de la venta.

- Publicación de estudios: ¿a qué se refiere esta partida? el Alcalde informa que si se valora de interés publicar el trabajo resultante de la beca Eugenio Murgia se publica, y así se ha hecho con la memoria



memoria historikoarekin. Sautu jaunak horren kostuaren berri galdetu eta Osoa Eribeko zinegotzi jaunak jakinarazi du 500 alerengatik 6.000 bat euro izan direla.

- Bere ustez gaur egun egon ez dauden partidak zuzentzea, eta tartean, Oregi Etxeko erregaiarena,... idazkariak erantzun dio urterik urte arrastean ekarri diren hainbat partidaren testuak zuzendu behar direla.

- Kirol-instalazioetarako gas-horniduraren kostua handia dela uste du, eta alkateak erantzun dio aurreko urteetako kontsumoak aintzat hartuta aurreikusita dela.

- EALZeko telefonoa: garestia iruditzen zaio, eta alkateak erantzun dio egiaztatu beharko dela zergatik aldatu den hornitzailea.

- Boloak: deigarria iruditzen zaio ez dagoelako martxan dagoen bolatokirik, eta alkateak erantzun dio funtzionatzen duten bolatokiak daudela eta urtero antolatzen dela txapelketa bat.

- Oso garestia iruditzen zaio publizitatera 7.500 € zuzentzea, eta alkateak esan dio honako hauek barne hartzen dituela: Zuiako publizitatea prentsan eta aldizkariak eta bestelako informazioa herritarrei banatzea.

- Egintza juridikoak 8.000 €, hau ere garestia iruditzen zaio.

- Nekazaritza ekologikoko lankidetzaren hitzarmena, zer da? Alkateak jakinarazi dio udalerrian nekazaritza ekologikoaren inguruan lan egiten ari den talde bat dagoela, nekazaritza ekologikoko ikastaroak eman direla eta abeltzain ekologikoentzako hitzaldiak aurreikusita daudela, besteak beste.

- Musika-irakaskuntzarako 23.000 €, musika-irakasleen soldatez gain; alkateak erantzun dio trikitixa, gitarra eta bateriako irakaskuntzari dagozkiola, zerbitzuen administrazio-kontratu bidez ematen delako.

- Udal-komunikazioetarako 19.000 €; alkateak dio Zubia udal-aldizkaria egitea

histórica; el Sr. Sautu pregunta el coste, informando el Concejal Sr. Osoa Eribeko que unos 6.000 euros todo 500 ejemplares.

- Corrección de partidas que entiende no existen hoy día como por ejemplo suministro combustible Casa Oregi,,... contestándole la Secretaria que efectivamente hay que corregir varios textos de partidas que se vienen arrastrando año tras año.

- Considera elevado el coste del suministro de gas para las instalaciones deportivas, contestándole el Alcalde que se ha previsto teniendo en cuenta consumo de otros años

- Teléfono CRAD: le resulta elevado, contestándole el Alcalde que habrá que comprobar porque se ha cambiado de suministrador.

